

5- IRABAZI ITURRIAK

Gure produktuaren prezioa hainbat faktoreren arabera izango da. Lehen aipatu dugun bezala, kodoien banakako prezioa 1.3 eurokoa izango da, neurriak ez du prezioan eragiten (XS, S, M, L).

Gure produktuak erosterakoan, kopuruaren arabera hiru (3) aukera egongo dira, erosleek hiru, sei eta hamabi kondoiko paketeetan erosi ahal izango dituzte gure produktua, bakoitza bere prezio indibidualekin.

Hiru kondoiek 3,99 euroko prezioa izango dute, beraz kondoia bakoitza 1,33 euroko balioa izango du, seiko aukera 8,50 eurokoa, 1,40 euroko balioarekin bakoitzeko, eta hamabiko aukera 11,5 eurokoa, 0,95 euroko balioarekin bakoitzeko.

Izan ere, beste motatako kondoia ere eskainiko ditugu klasikoak aparte, ezaugarri bereziekin gure bezeroen beharrak hobeto asetzeko.

Gure erosleek hiru aukeren artean aukera dezakete kasu honetan ere:

1. "extrafino", 2. "extragrueso" eta 3. "extralubrikado", eta hauetako bakoitzak bere prezio indibiduala edukiko du. Lehenengo biak 1,4 eurotan bakoitzeko eta hirugarrena 1,5 eurotan bakoitzeko.

Lehenengo aukera (extrafino), gure erosleek sentsibilitate handiagoa izan dezaten eskaintzen dugu, gure produktua erabiltzea hala nahi badute.

Bigarrenaren kasuan kontrakoa da, erosoago egoten badira, aukera hori ere eskaintzen dugu.

Eta, azkenik, hirugarren aukera bat eskaintzen dugu, kondoia aurrekoak baino lubrifikatzaile gehiago dituen, produktu honen erabiltzaileen gustuak betetzeko beharrezkoa bada edo besterik gabe.

Hala ere, gure produktuen prezioa denborarekin alda daiteke, eskaintzan eta eskariaren arabera, horrek dakarren inflazioaren ondorioz edo gure ekoizpenean aldaketak eragin ditzaketen beste kanpoko arrazoi batzuen ondorioz.

Txikizkako azken erosleei saltzeari dagokionez, horiek izango dira prezioak, berriz, handizkako salmentetan, farmazietara eta gure produktua eskaintzen den lokaletara hornitu orduan, prezioa aldatu egingo da salmentaren magnitudearen arabera. Kasu horietan transakzioak handiagoak direnez, unitateko prezioa txikiagoa izango da.